

## A214. IMMIGRAZIOA

### **BIGARREN ARIKETA**

*Denbora, gehienez: 120 minutu.*

*Zuzeneko gehieneko puntuazioa: 30 puntu*

#### **Ez ireki galdera-orriak esan arte, eta irakur itzazu arretaz orri honetako jarraibideak.**

- **Mugikorrak itzalita** eduki behar dira, eta mahaitik kanpo, baita erlojuak, jarduera-eskumuturrekoak eta antzekoak ere. Ur botilak, estutxeak eta antzekoak eskura eduki daitezke, baina ez mahaiaren gainean.
- Aretoan erlojurik ez badago, ahoz jakinaraziko da zenbat denbora falta den proba bukatzeko: 60, 30, 15, 10 eta 5 minutu geratzen direnean, eta azken minutuan.
- Mahaiaren gainean hauek besterik ezin izango dira eduki: galdera-orriak, identifikazio-orria, NANA eta boligrafoa (urdina edo beltza). Ezin da erabili kolorezko errotuladorerik; bai, ordea, TIPEX® edo antzekorik.
- Epaimahaiak **irakurtzeko moduko idazkera** erabili behar da ariketan.
- GAKOA duen **identifikazio-orria** eman badizute, jar itzazu datu hauek: NAN zenbakia, izena, abizenak eta probaren kodea/izena.
- **Idatz ezazu GAKOA** erabiltzen dituzun **erantzun-orrietan**. EZ ezazu idatzi izenik edo NAN zenbakirik orrian, ezta sinatu ere, EZ ZUZENTZEKO arrazoia baita. Orriaren bi aldeak erabili. Orriei jarri zenbakiak, ez orrialdeei.
- Identifikazio-orria probaren lehen minutuak igaro ondoren jasoko da.
- **Bertaratze-ziurtagiria** nahi baduzu, eska ezazu presentzia-kontrola egiten den unean.
- Erantzun labur eta zehatzak eman behar dira. Aldez aurretik zehaztuta daude zuzenketa-irizpideak. Galdera bakoitzaren gehieneko balorazioa enuntziatuan bertan adierazten da.
- Denbora agortu aurretik bukatzen baduzu, altxa eskua erantzun-orriak har diezazkizuten. Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.
- Ez ahaztu erantzun-orri guztietan adieraztea:
  - **LEP kodea (A214)**
  - **Identifikazio-gakoa**
  - **Orri-zenbakia** / erabilitako orriak, **guztira**

**Eskerrik asko zure laguntzagaritik**

8 A oinarriaren arabera, Gasteizko Udalaren 2017-2018ko LEPari dagokion lehiaketa-oposaketa prozesuko bigarren ariketa honetan datza: proba praktikoa bat edo batzuk egin beharko dira, lanpostuaren funtzio eta zereginekin zuzenean lotuak. Zentzu horretan, lanpostuaren zereginen katalogoaren arabera, lanpostu honetako zeregin nagusiak hauek dira: funtzio teknikoaren taldean modu generikoan jasotakoak, titulazio-taldearen zereginak eta lanpostuaren berariazko zereginak. Horrez gain, egin diren lan zehatzen zenbait adibide jaso dira.

Lau kasu praktikoa ditu probak, eta horiei erantzun beharko zaie, ahalik eta modurik egoki eta zehatzenean. Bakoitzaren gehieneko puntuazioa 7,5 puntukoa da. Erantzun egoki eta osoei emango zaie gehieneko balorazioa, eta murrizketak egingo dira erantzunak osorik ez badaude edo oker badaude.

A4 orrialde bati dagokiona da erantzunak idazteko espazioa. Bi orri izango dituzu; beraz, kasu bakoitzaren erantzuna orrialdeetako batean idatzi behar duzu. Kasu bakoitzari erantzun iezaiozu dagokion orrian. Horrez gain, nahi adina orri eskatu ahal izango dituzu, zirriborroak egiteko, edo kalkuluak, eskemak eta beste. Horiek ez dituzu entregatu beharko, ez dira jasoko, zuzenduko, eta zeurekin eraman ahal izango dituzu, galdera-orriekin batera, bukatutakoan. Ez da zuzenduko, ez ebaluatuko, orri horietan idatzitakoa.

1. KASU PRAKTIKOA.- Lauki eta taulak ulertu eta interpretatzea.
---

Gasteizko Udaleko lanpostu honen berariazko zereginen artean dago “bere esparruko jarduerak, programak, proiektuak edo planak diseinatzea.” Horretarako, errealitate jakin bat zenbaki bitartez laburbiltzen duten taula eta laukiak ulertzeko gai izan behar duzu. 1. eta 2. eranskinetan, hurrenez hurren, bi lauki ageri dira, eta horietan oinarrituta erantzun beharko diezu ondoko galderei. Lana erraztuko dizu KALKULAGAILUA erabiltzeak. Balorazioa: Zazpi galdera dira. Ondo erantzuten den bakoitzeko puntu bana emango da —1.4. galdera izan ezik, horrek 1,5 puntu balioko baitu—.

1. taula (1. eranskina).- Migrazioa Gasteizen (*Biztanleriari buruzko 2017ko txostena*. Gasteizko Udaleko Ikerketa Bulegoa, 2018).

Galderak.

1.1.- Bete ezazu taularen 5. zutabea.

1.2.- Adieraz itzazu gizonezkoak gehiago izanik zenbaki absolututan gizonezkoen eta emakumezkoen kopuruen arteko alderik handienak erakusten dituzten 6 herrialdeak.

1.3.- Adieraz itzazu emakumezkoak gehiago izanik zenbaki absolututan emakumezkoen eta gizonezkoak kopuruen arteko alderik handienak erakusten dituzten 6 herrialdeak.

1.4.- Ba ote dago aurreko bi egoerak azal litzakeen arrazoirik? Egizu hipotesiren bat, 2018-2020 aldirako Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruko V. Jarduera-planaren barruan ekintza bereiziren bat definitze aldera.

2. taula (2. eranskina).- Immigrazioaren errealitatea Europar Batasuneko herrialdeetan, 2016 (Eurostat).

Galderak.

2.1.- Zenbat etorkin izan ziren Espainian, 2016an, guztira?

2.2.- EBko zein herrialdek izan zuen etorkin-kopururik handiena, 2016an?

2.3.- Ordena itzazu, etorkin-kopuruaren arabera (2016), handienetik txikienera, herrialde hauek: Espainia, Italia, Britainia Handia, Alemania eta Frantzia, eta jarri ondoan bakoitzaren kopuru osoa.

## 2. KASU PRAKTIKOA.- Atzerritarrak, bizilekua eta administrazio-egoerak erregularizatzea.

Gizarte-etxe bateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzura gazte bat agertu da, Mahamadu Buhari izena omen duena, zein bere egonaldia buruzko berariazko dokumentaziorik gabe baitago Espainian. Pasaporte aurreratu du, baina ez dauka bisarik, ez beste dokumentaziorik. Bere egoera administratiboa erregularizatzeko nahia agertu du, baina eskatzen du ez dadila egin Atzerritarren Bulegoen bitartez, zurrumurru bat baita atzerritarren komunitatean, zeinen arabera, horietako edozein bulegotara joz gero, poliziak atxilotu baitezake. Oinarrizko Gizarte Zerbitzua Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzuarekin jarri da harremanetan, eta eman beharreko lehen urratsen inguruko aholkularitza eskaintzekotan dira bertako langileak, nahiz eta argi utzi zaion prozeduraren uneren batean Gobernu Zentralaren Atzerritarren Bulegora eta Polizia Nazionalera jo beharko duela. Demagun zeure gain utzi duela zerbitzu horrek hari hasierako informazio guztia ematea eta lehenengo urratsetan laguntzea. Egoera horren aurrean, datu-bilketari ekin diozu, Mahamadu Buhari elkarrizketatuz. Dokumentaziorik ez duela berretsi dizu, pasaporte salbu, zeinen bitartez ikus baitaiteke nigeriar nazionalitatea duela. 27 urte ditu, bakarrik bizi da, eta Espainiako hainbat hiritatik igaro izan da, ordainpeko jarduerak eginez ekonomia araututik kanpo, eta, horregatik, ezin du egiaztatu egoitza-aldi esanguratsurik, eta ez dauka baliabide ekonomikorik, ez lan-kontraturik, eta hainbat bider izan da bere lan-eskubideekiko abusuen biktima, eta egoera erregularizatzen saiatzera eraman du horrek —izatez, ordaindu gabeko diru-kopuru baten erreklamazioa ere badu ebazteke, enplegatzaile baten aurrean—. Nekazaritzaren sektorean lan egin nahi du, hainbat petrolio-ustiategik deserrotutako herrialdearen erdialdeko nekazari-komunitate batetik baitator, nahiz eta ez den izan inongo delitu larriren biktima, eta ez duen egiaztatzen gaixotasun larriarik duenik. Ez du ematen bere herrialdera joateak —bisa eskatzeko— segurtasun-arazorik sor liezaiokeenik, ez berari ez beraren familiari. Besterik gabe, ez dauka bitartekorik horretarako. Zenbait neurri hartzen hasi zara zu, eta hainbat jarduera iradokitzen. Zure gestioetan arrakasta izatea espero dugu.

Balorazioa: Bost galdera dira. Egoki erantzundako bakoitzeko 1,5 puntu emango dira.

### Galderak:

- 2.1.- Zer gomendatuko zenioke, hiriko Udal Erroldan izana ematearen inguruan? Uste duzu erroldatzea dela zenbait eskubide edo zerbitzu edukitzeko sarbidea? Baiezkoan, zein?
- 2.2.- Zein erregularizatzeko gomendatuko zenioke, dauden bost edo seiren artetik? Zein uste duzu zuk ongien egokituko litzatekeela bere egoerara, eta zergatik?
- 2.3.- Nekazaritzaren sektorean kontratatua izateko aukera izango balu, baina ez balitz enplegatzaile bakarrarekin, bide horretatik jarraitzera animatuko al zenuke?
- 2.4.- Egoitza-baimena lortuko balu, Identitate Txartela eskatu beharko luke Polizia Nazionalaren komisarian? Ba al dago eperik horretarako?
- 2.5.- Egoitza- eta lan-bisarekin etorriko balitz, errazagoa al litzateke erregularizatzeko administratiboa? Beharrezkoa izango al litzateke Gizarte Segurantzaren alta ematea kontratatzailearen batek, gehieneko denbora-tarte batez?

### 3. KASU PRAKTIKOA.- Nazioarteko babes. Asiloa eta babes subsidiarioa.

Joan den ekainaren 18an, Bilbon, Errefuxiatuari Laguntzeko Espainiako Batzordearen (CEAR Euskadi) ordezkariak prentsaurrekoan adierazi zuten, eta hala jaso zuten hedabideek, 2018 osoan baino 500 eskabide gehiago jaso zituen Euskadik 2019ko lehen bost hilabeteetan. Horregatik, uste da 2019ko kopuru osoa 2018koaren bikoitza izango dela. Arabaren kasuan, 2018an 385 eskabide izan ziren, eta, beraz, espero izatekoa da 2019. urte honetan 700 ingurukoa izatea. Pertsona horiei harrera egiteko aukera emango duten baliabideak aurrekustera behartzen duten zifrak dira, berekin dakarten sufrimendua ez areagotzeko. CEAREko arduradunen arabera, Euskadin harrera emateko dauden baliabideak hedatu beharra dago. Iturri ber horien arabera, hauek dira eskatzaileen jatorrizko herrialdeak: Venezuela, Kolonia, Siria, Honduras eta El Salvador. Datu eta aurreikuspen horien aurrean, hipotetikoki, Gasteizko Udalak, parte hartzen duen organo ofizialetan eta gizarte zibilarenetan pertsonak prestatzeko interesa du, bere gain hartu ahal izateko harrera ahalik eta modurik hobereanean emateko erronka eta, bereziki, Estatuko harrera-sisteman lekua esleitu zain dauden bitartean egoitza-baliabideak behar dituzten pertsonen —itxaronaldi luzea daramatenei— erantzun ahal izateko.

Udalaren lankidetzak, prozesu horretan guztian, oso aktiboa izan behar du. Izan ere, herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa izaki, hainbat arazori aurre egin behar die, hala nola errolda, etxebizitza edukitzeko eskubidea, bizitegi-konponbideak eta abar.

Horren guztiaren inguruan, hipotetikoki, Udalaren Bizikidetzak eta Aniztasun Zerbitzuak enkargu bat jaso du, zein baita prestakuntza kolaboratiborako plan bat diseinatzea, Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzeari buruzko urriaren 30eko 12/2009 Legearen hainbat alderdiren inguruan, kolaboratzaileentzat eta asilo-eskatzaileentzat interesekoa izango dena. Zerbitzuak, hipotetikoki, zuregana jo du hori diseinatzeko. Zuk uste duzu ikastaroak legediaren inguruko hainbat alderdi jorratu behar dituela, bereziki 12/2009 Legea; izan ere, zeure iritziz, inportantea da asilo-eskatzaileak, zain dauden bitartean, babes horretara sarbidea izateko baldintza batzuk badaudela jakitun izatea, eta, horregatik, hasiera-hasieratik eduki behar dutela hori argi kolaboratzaileek.

Balorazioa: 10 galdera dira, guztira gehienez 7,5 puntu; hortaz, galdera bakoitzak 0,75 puntuko gehieneko balorazioa izango du.

#### **Galderak:**

- 3.1.- Edonork, asilo-eskabide aurkezteagatik besterik gabe, eskuratu ahal izango du, hori edo nazioarteko babes subsidiarioa?
- 3.2.- Ba al dago nolabaiteko ezinbesteko baldintzarik, Espainian babes subsidiarioarako eskubidea lortzeko?
- 3.3.- Jazarpen-motiboen artean 'arraza' kontzeptutzat jotzen da bakarrik kolorea ala talde etniko jakin batekoa izatea ere barne har daiteke?
- 3.4.- Erljio-motiboei zor zaien jazarpenaren kontzeptuak ateoak barne hartzen ditu?
- 3.5.- Errefuxiatu izaeratik baztertu al daitezke herrialde jakin batean instalatuta egonik herrialde horretan naturalak direnen pareko eskubide eta betebeharrak onartu zaizkien pertsonak?
- 3.6.- Baztertu al daitezke errefuxiatu izaeratik lapurretaren bat egin duten pertsonak?
- 3.7.- Esklusiboki herrialde baten barruko gatazka baten ondorio den bereizketarik gabeko indarkeriak berekin dakartzan mehatxu larriak izan al daitezke babes subsidiarioa aitortzeko baldintza?
- 3.8.- "Agente ez estatal" direlakoan jazarpena, herrialde batean, izan al daiteke nazioarteko babes-mekanismoak eskatzeko baldintza?
- 3.9.- Espainian nazioarteko babes eskatzen duten pertsonen izango al dute doako osasun-laguntza eta laguntza juridikoa jasotzeko eskubiderik? Eta interpretearen laguntza izatekoa?
- 3.10.- Nazioarteko babes eskatzen duen pertsona batek, egin al diezaioke uko hatz-markak emateari edo horretarako gaitutako langileek —poliziak, segurtasun-agenteak, funtzionarioak— argazkiak egiteari, eskubidea aurkeztu duen herrialdean?

#### 4. KASU PRAKTIKOA.- Arrazakeriari eta xenofobiari buruzko lantegia.

“Eguneroko arrazakeriak” direlakoak identifikatu, ulertu eta sailkatzeko eta argudio argitzaileak prestatzeko lantegia. Balorazioa: 1,25 puntu gai bakoitzeko.

Gizarte-etxe bateko oinarrizko gizarte-lantalde batetik Bizikidetza eta Aniztasun elkargunean presente dagoen elkarte baten eskabideari bide eman zaio. Bertan, Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuari eskatzen zaio lantegi praktikoa bat antola dezala, interesaturik daudenei aukera eman diezaien arrazakeria motak identifikatzeko eta horren aurrean defendatzeko argudio sorta bat lantzeko. Zurrumurruen kontrako udal estrategian lekua du horrek. Lantegia oso praktikoa izan dadila eskatu dizute. Horretarako, hipotetikoki, uste duzu beharrezkoa dela kalean entzuten dena aztertea, desmuntatzeko aukera emango duten argudioak emateko. Lider politikoek, iritzi-sortzaileek, senideek, lagunek, egunkarietako titularrek eta bestek —kale mailan— erabili ohi dituzten zenbait baieztapenen azpian dauden arrazakeria motak sailkatuko dituen argumentu sorta bat prestatzea planteatzen da. Sei gaitan ordenatu dituzu lantegia zentratzeko aukeratu dituzun esaldiak. Horietako bakoitzari dagokionez, zehaztu behar duzu arrazakeria diren ala ez, eta orobat arrazakeria tipifikatu, ACNURren sailkapenaren arabera, eta kontrako argudioak eman. Esaldi bakoitzeko eman dezakezu erantzuna, edo gai osoaren inguruan argudiatu. Gai osoari ematen diozun erantzunaren gainean egingo da balorazioa. Kalean entzunda edo hedabideetatik jasotzen dituzun esaldien artetik, hauek aukeratu dituzu lantegirako:

##### 4.1. gaia.-

4.1.a. “Ni beren herrialdera joaten banaiz, bere kultura errespetatu behar dut; errespetatu dezatela berek gurea, hona datozenean. Ez dute integratu nahi”.

4.1.b. “Ez dugu zertan behartuta egon edozein motatako immigrazioa hartzera. Herrialde musulmanei betoa jar dakiela eskatzen dut”.

4.1.c. “Burkak diskriminatu egiten du emakumea. Ez dut nahi nire alabak ikustea egunero, normala balitz bezala, emakume batek aurpegia estali behar duela bere gorputzean bekatuzko zer edo zer dagoelako”.

4.1.d. “Nondik datoz hilketa matxisten egileak? Zein nazionalitatekoak dira? Ba al dute ikustekorik immigrazioaren parte baten arazo kulturalekin?”

##### 4.2. gaia.-

4.2.a. “Espainiarrei eraso egin eta lapurtzera datoz”.

4.2.b. “Delituak egitera datoz, bai baitakite gure legeak permisiboak direla eta zigorrak ez direla betetzen”.

4.2.c. “Begiratzen baduzue, ikusiko duzue kaleko lapurreta gehienak “mena” marokoarrek egiten dituztela”.

4.2.d. “Eraso basatia egin dio *mena* talde batek turista bikote bati Bartzelonan, lapurtzeko”.

4.2.e. “Kalean eta diskoteka-atarietan gertatzen diren hilketa gehienak hegoamerikarrek eraginak izaten dira. Azkar ateratzen dute labana!”

4.2.f. “Bortizkeriazko lapurreta Europa ekialdeko bandek egin ohi dituzte. Oso oldarkorrak dira albanokosovarrak, errumaniarrak, errusiarrak, bulgariarrak, serbiarrak”.

#### 4.3. gaia.-

4.3.a. “Gizarte-laguntzetatik bizitzera datoz. Hemen doan ematen diegu etxebizitza, diru-sarrerak bermatzeko errenta, osasun-zerbitzua eta hezkuntza. Seme-alabak besterik ez dute egiten berek”.

4.3.b. “Lanean baino laguntza gehiago jasotzen dituzte”.

4.3.c. “Lanpostuak kentzen dizkigute”.

4.3.d. “Dei-efektua ekidin behar da”.

4.3.e. “Nire herrialdearen atea neuk nahi dudanari irekitzearen aldekoa naiz”.

#### 4.4. gaia.-

4.4.a. “Indar publikoa zabalduko dut, bat ere lehorreratu ez dadin. Immigrazioa ezin dute kudeatu legez kanpoko ontziek. Edonolako ilegaltasunak blokeatzeko prest gaude. Okertzen denak ordaindu egin behar du. XXXX GKEari ez zaizkio axola legeak, bere ontzia legez kanpo dago, eta arriskuan jartzen dute etorkinen bizitza, joko politiko zikin batengatik. Italiak ezin du izan iriste-leku gizakien trafikatzailen konplize diren guztientzat”.

#### 4.5. gaia.-

4.5.a. “Hainbeste gustatzen bazaizkizu mairuak, ea batek erasotzen dizun”.

4.5.b. “Hainbeste axola bazaizkizu etorkinak, zergatik ez duzu zure etxean sartzen?”

#### 4.6. gaia.-

4.6.a. “Ez dut eramango semea etorkin asko dagoen eskola batera, dagokien erritmoan egiten baitute aurrera”.

4.6.b. “- Kanpoko izateko ondo hitz egiten duzu gaztelaniaz.

- Uruguaikoa naiz.

- Hori ba, oso ondo hitz egiten duzula”.

4.6.c. “Nire senarrari, hegoamerikarra naizela enteratzen direnean.

- Eskuarina bilatu duk, e? (keinua, keinua, ukondokada, ukondokada”.

1. eranskina.- Gasteizen ugarien diren nazionalitateak, sexuaren arabera.

Jatorrizko herrialdea	Emakum ea	Gizona	Guztira	% Emakum ea
Espainia	116.848	109.873	226.271	
Maroko	1.925	2.276	4.201	
Nigeria	952	902	1.854	
Kolonia	914	778	1.692	
Aljeria	674	955	1.629	
Pakistan	422	932	1.354	
Errumania	624	618	1.242	
Paraguai	647	308	955	
Txina	438	410	848	
Portugal	305	492	797	
Brasil	501	282	783	
Dominikar Errepublika	247	208	455	
Venezuela	254	200	454	
Ukraina	262	185	447	
Georgia	206	173	379	
Senegal	112	265	377	
Bolivia	204	152	356	
Peru	176	131	307	
Ekvador	134	164	298	
Italia	120	175	295	
Ghana	106	185	291	
Bulgaria	110	140	250	
Kamerun	86	157	243	
Mauritania	107	136	243	
Kuba	132	78	210	
Argentina	100	104	204	
Gasteizko BIZTANLERIA, guztira	128.203	121.848	250.051	

2. eranskina.- Immigrazioaren errealitatea Europar Batasuneko herrialdeetan, 2016 (Eurostat). (Hurrengo orria)

## Immigration by citizenship, 2016

	Total immigrants	Nationals		Non-nationals							
		(thousands)	(thousands)	Total	Citizens of other EU Member States		Citizens of non-member countries		Stateless		
					(thousands)	(%)	(thousands)	(%)	(thousands)	(%)	(thousands)
Belgium	123.7	17.6	14.2	105.4	85.2	58.9	47.6	46.5	37.6	0.0	0.0
Bulgaria	21.2	9.3	43.6	12.0	56.3	1.3	6.2	10.6	50.0	0.0	0.2
Czech Republic	64.1	4.5	7.1	59.5	92.9	29.6	46.3	29.9	46.7	0.0	0.0
Denmark	74.4	19.7	26.5	54.6	73.5	25.0	33.6	28.6	38.4	1.1	1.5
Germany <sup>(1)</sup>	1 029.9	110.5	10.7	912.8	88.6	403.6	39.2	507.0	49.2	2.2	0.2
Estonia	14.8	7.1	48.1	7.7	51.9	3.5	23.7	4.2	28.2	0.0	0.0
Ireland	85.2	28.0	32.9	56.1	65.8	28.9	33.9	27.2	31.9	0.0	0.0
Greece	116.9	30.7	26.3	86.1	73.7	16.6	14.2	69.5	59.5	0.0	0.0
Spain	414.7	62.6	15.1	352.2	84.9	116.3	28.0	235.6	56.8	0.2	0.1
France	378.1	137.2	36.3	240.9	63.7	82.7	21.9	158.2	41.8	0.0	0.0
Croatia	14.0	7.7	55.3	6.2	44.7	2.2	15.8	4.0	28.9	0.0	0.0
Italy	300.8	37.9	12.6	262.9	87.4	62.7	20.8	200.2	66.6	0.0	0.0
Cyprus	17.4	3.6	20.5	13.8	79.5	7.4	42.3	6.5	37.3	0.0	0.0
Latvia	8.3	4.9	58.7	3.4	41.0	0.5	6.0	2.9	34.9	0.0	0.1
Lithuania	20.2	14.2	70.5	6.0	29.5	0.8	3.7	5.2	25.7	0.0	0.1
Luxembourg	22.9	1.3	5.8	21.5	94.1	16.0	69.7	5.6	24.3	0.0	0.0
Hungary	53.6	29.8	55.6	23.8	44.4	10.5	19.6	13.3	24.7	0.0	0.0
Malta	17.1	1.4	8.1	15.7	91.9	9.0	52.6	6.7	39.3	0.0	0.0
Netherlands	189.2	42.5	22.5	144.8	76.5	63.9	33.8	76.7	40.5	4.2	2.2
Austria	129.5	9.8	7.5	119.6	92.4	64.7	50.0	54.5	42.1	0.5	0.4
Poland <sup>(2)</sup> <sup>(3)</sup>	208.3	105.4	50.6	102.9	49.4	22.8	10.9	80.1	38.4	0.0	0.0
Portugal <sup>(2)</sup>	29.9	14.9	49.7	15.1	50.3	7.2	24.1	7.8	26.2	0.0	0.0
Romania	137.5	119.6	87.0	17.9	13.0	5.6	4.1	12.3	8.9	0.0	0.0
Slovenia	16.6	2.9	17.2	13.8	82.8	3.4	20.4	10.4	62.4	0.0	0.0
Slovakia	7.7	4.1	53.0	3.6	47.0	3.0	38.9	0.6	8.1	0.0	0.0
Finland	34.9	7.6	21.9	26.9	77.0	7.1	20.3	19.6	56.3	0.2	0.5
Sweden	163.0	20.0	12.3	142.5	87.4	30.5	18.7	104.4	64.0	7.6	4.6
United Kingdom	589.0	74.2	12.6	514.8	87.4	249.4	42.3	265.4	45.1	0.0	0.0
Iceland	8.7	2.3	26.2	6.4	73.8	5.3	60.9	1.1	12.8	0.0	0.0
Liechtenstein	0.6	0.2	29.2	0.4	70.8	0.2	37.4	0.2	33.4	0.0	0.0
Norway	61.5	6.7	10.9	54.7	89.1	21.4	34.9	32.4	52.7	0.9	1.5
Switzerland	149.3	24.3	16.3	125.0	83.7	87.3	58.5	37.6	25.2	0.0	0.0

Note: The individual values do not add up to the total due to rounding and the exclusion of the 'unknown' citizenship group from the table.

<sup>(1)</sup> Break in series.

<sup>(2)</sup> Provisional.

<sup>(3)</sup> Estimate.

Source: Eurostat (online data code: migr\_imm1ctz)



